

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

GENERO INDARKERIA ETA NAZIOARTEKO ADINGABEEN BAHIKETA: NAZIOARTEKO
TRESNEN ERAGINKORTASUNA IRTENBIDE BAT TOPATZERAKO ORDUAN.

Zuzenbide gradua

2023-2024

Egilea: Aiora Perez Galarraga

Zuzendaria: Idoia Otaegui Aizpurua

AURKIBIDEA

I. Sarrera.....	1
II. Nazioarteko adingabeen bahiketen bilakaera.....	4
1. Itzulera eskarien igoera orokorra.....	5
2. Kasuen trataera eta emaitza.....	6
III. Bahiketen atzean dagoen genero indarkeria eta Hagako Konferentziaren erantzuna.....	7
1. Bahitzailearen bilakaera eta testuinguru aldaketa.....	8
2. Hagako Konferentziaren irtenbidea.....	10
IV. Europar Batasuneko araudi egoera.....	12
1. Brusela II bis-etik Brusela II ter-era aldaketa.....	13
2. Arauketan genero ikuspegia sartzeko aukera galdua: Istanbulko Hitzarmenaren inplementazioa.....	17
V. Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren interpretazioa.....	19
1. Arrisku larriaren azterketarako irizpideak.....	19
2. Irizpideen aplikazioa etxeko indarkeria kasuetan.....	24
VI. Ama bahitzailearen babes itzulera prozesuan.....	28
1. Babes neurriak adingabeen nazioarteko bahiketan.....	30
2. 2013ko ekainaren 12ko 606/2013 Erregelamendua eta 2011/99/EB Zuzentaraua.....	31
VII. Ondorioak.....	33
VIII. Bibliografia.....	35

I. Sarrera.

Arrazoi ezberdinak bultzatuta adingabe bat beste Estatu batera eramaten denean eta, ondorioz, jatorrizko Estatuan finkatutako zaintza edota bisita eskubidea urratzen denean, nazioarteko adingabeen bahiketa ematen da. Gatazka hau ez da berria eta adingabeei sortzen dizkien kalte larriak kontuan izanda nazioarteko Zuzenbide pribatuaren ikuspegitik hura babesteko beharra sortzen da.

Babes hori lortzeko eta, hortaz, bahiketa hauek saihestu eta murrizteko, ekimen ezberdinak aurrera eraman dira. Gaur egun egoera hau arautzeko dagoen tresnarik indartsuena 1980ko urriaren 25ean sortutako Nazioarteko Adingabe-Bahiketaren Alderdi Zibilei buruzko Hitzarmena¹ (aurrerantzean, Hagako Hitzarmena) da. Hitzarmen honen bitartez bahitua izan den adingabearen ongizatea bilatzen da, era berean, parte diren Estatuetan zaintza eta bisita eskubideak errespetatzea lortuz. Horretarako aurreikusten den arau orokorra berehalako itzulerarena da, kasu jakin batzuetarako salbuespenak ere aurreikusiz.

Era berean, Europar Batasunean 2019ko ekainaren 25eko 2019/1111 Erregelamendua² dago indarrean (aurrerantzean, Brusela II *ter*). Erregelamendu honen gai eremua oso zabala da, baina, nazioarteko adingabeen bahiketan zentratuz, Hagako Hitzarmenarekin osagarriak diren xedapenak aurreikusten dira³, segurtasun juridikoa indartzera bideratuak daudenak. Honela, Erregelamenduaaren parte diren Estatu kideetan nazioarteko adingabeen bahiketa ematean, Hagako Hitzarmena eta Brusela II *ter* Erregelamendua aplikatu beharko dira.

Hori horrela, kontuan izan behar da Hagako Hitzarmena 1983an sartu zela indarrean eta geroztik, gizartearen bilakaera ematearekin batera, nazioarteko adingabeen bahiketetan

¹ 1980ko urriaren 25ean sortutako Nazioarteko Adingabe-Bahiketaren Alderdi Zibilei buruzko Hitzarmena (EBO 202 zkia, 1987ko abuztuaren 24ekoa).

² 2019ko ekainaren 25eko 2019/1111 Erregelamendua, ezkontzarekin zerikusia duten gaietan, guraso erantzukizunaren gaietan eta adintxikien nazioarteko bahiketaren gaietan, nazioarteko eskumena eta gai hauetan emandako ebazpenen aintzatespen eta egikaritzari buruzkoa (EBAO 178 zkia, 2019ko uztailaren 2koa).

³ 2019/1111 Erregelamenduko 22. artikulua.

aldaketa esanguratsu bat eman dela: testua sortu zenean bahitzailea adingabearen aita izan ohi zen (ez zena ez zaintza eskubide ezta bisita eskubidearen titularra), aldiz, gaur egun gehiago altu batean ama da beste herrialde batera ihesean joaten dena (adingabearen zaintza eskubidearen titularrak izan ohi dira). Bilakaera honen atzean dagoen arrazoia aurkitzeko ikerketa asko burutu dira, eta baieztatu daiteke genero indarkeriarengatik ihesean mugitzen direla gehienetan ama bahitzaile hauek.

Errealitate hori da gradu amaierarako lan honen abiapuntua. Lan honetan zehar Hagako Hitzarmenaren eta Brusela II *ter*-en eraginkortasuna aztertuko da, ikusteko ea adingabea eta ama aldi berean babestea posible ote den edota etorkizunean lortu daitekeen. Hori aztertzeko, bi testu nagusi hauez gain, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren (aurrerantzean, GEEA) jurisprudenzia aztertuko da, epaitegien joera ikusteko eta arauari emandako interpretazioa ezagutzeko.

Lanarekin hasi aurretik, interesekoa da terminologiaren aldetik azalpen bat txertatzea. Emakumearen aurkako indarkeria agertzean kontzpetu ezberdinak erabili ohi dira: bikotearen arteko indarkeria, etxeko indarkeria, genero indarkeria, indarkeria matxista... Estatu bakoitzean arauketa eta terminologia ezberdin bat sortzen da eta honek praktikan arazoak ekartzen ditu kontzeptu batetik bestera egon daitezkeen aldagetak direla eta.

Nahaste hau argitzeko ekarpen oso garrantzitsuak egin dituen Hitzarmena lan honetan agertu beharrekoa da: Emakumeen aurkako indarkeriari eta etxeko indarkeria aurreikusi eta aurre egiteko Europako Kontseiluaren Hitzarmena, 2011ko maiatzaren 11koa⁴ (aurrerantzean, Istanbulko Hitzarmena). Hitzarmen honen bitartez interpretazio zabal bat eman zaio emakumearen aurkako indarkeriari, edozein indarkeriari erreferentzia eginez. Era honetara garrantzia eman nahi izan zaio indarkeriaren biktima denari (emakumea) eta indarkeria gauzatzen duenari (gizona), alde batera utziz bestelako

⁴ Emakumeen aurkako indarkeriari eta etxeko indarkeria aurreikusi eta aurre egiteko Europako Kontseiluaren Hitzarmena, 2011ko maiatzaren 11koa, Istanbulen eginga (EBO 137 zkia, 2014ko ekainaren 6koa).

bereizkeriak. Hortaz, nazioarte mailan onartu da etxeko indarkeria zein genero indarkeria bereizi gabe erabiltzea⁵.

Hori argituta, lan honetan zehar bi kontzeptu horiek erabiliko dira emakumearen aurkako indarkeriari erreferentzia egiteko.

II. Nazioarteko adingabeen bahiketen bilakaera.

Sarreran aurreratu bezala, nazioartekoa adingabeen bahiketan testuinguru aldaketa garrantzitsu bat eman da azken urteetan. Hagako Hitzarmena 40 urtez egon da dagoeneko indarrean eta ibilbide luze honi esker praktikan ikusi ahal izan da emandako kasuen aldaketa.

Hagako Konferentziaren eskutik nazioarteko adingabeen bahiketei buruzko datuak jaso ahal izan dira, hauen bildumak burutuz Estatu ezberdinetako autoritate zentralek eskainitako informazioa erabiltzen. Lehenengoa 1999ko datuekin gauzatu zen, 2003 eta 2008koak jarraituz, eta azkena 2015ekoa da.

2024. urtean ez dago informazio berririk eskuragarri, eguneratutako azkeneko datuak 2015ekoak dira, 2017an argitaratuak izan zirenak, beraz, hauek izango dira lan honetan erabiliko direnak⁶. Azken bilketa honetarako 72 Estatutako autoritate zentralek haien Estatuan jasotako datuak eskaini zituzten. Dena dela, Hagako Konferentziaren parte diren Estatu guztietako informazioa ez badago ere, errealitatean emandakoen %97 dela estimatzen da.

Kontuan izan behar da datu bilketa honetarako informazioa autoritate zentralek eskainitakoa dela eta, beraz, errealitatean badirela hainbat eta hainbat kasu lan honetatik

⁵ Ruiz Sutil, M. C., “Implementación del Convenio de Estambul en la refundición del Reglamento Bruselas II Bis y su repercusión en la sustracción internacional de menores”, *Cuadernos de Derecho Transnacional*, 2018, Vol. 10, 2. zkia, 615-641 or.

⁶ Lowe, N., Stephens, V., *A Statistical Analysis of Applications Made in 2015 under the Hague Convention of 25 October 1980 on the Civil Aspects of International Child Abduction, Part I - Global Report*, Permanent Bureau of the Hague Conference on Private International Law, The Hague 2017.


kanpo geratu direnak egoera bideratzeko bestelako bideak edo instrumentuak erabili direlako.

1. Itzulera eskarien igoera orokorra.

Datuak duela ia 10 urtekoak badira ere, esanguratsuak diren zifrak agertzen dira. 2015eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra, autoritate zentralak adingabeen itzulera eskatzen zuten 2.270 demanda ezagutu zituzten.

Zifra altuak dira eta erakusten dute arazoa azken urteetan areagotu egin dela murriztu beharrean, izan ere, 2008ko datuetan jasotako zifra 1.961 kasuetakoa da. Alegia, azkeneko datuek erakusten dute %3ko igoera bat eman dela zazpi urteetan zehar.

Hurrengo irudiak erakusten du kolore bidez zein Estatutan jasotzen diren eskari gehien (urdin ilunetik berdera). Begi bistakoa da Amerikako Estatu Batuetan (313 eskari) eta Erresuma Batuan (294 eskari) kopuruak altuak direla, hala ere, Europar Batasuneko Estatu kide batzuk ez dira atzean geratzen. Guztira, 2015ean gaur egun indarrean dagoen Brusela II *ter* Erregelamenduaren parte diren Estatuak 1.161 itzulera eskari jaso zituzten.



Lowe, N. eta Stephens, V., *A Statistical Analysis of Applications...* op cit. 6. or.

Hauek datu globalak dira, baina Estatu bakoitza banaka hartu eta bertako datuak aztertzen badira, ia kasu guztietan igoera nabarmen bat eman da jasotako eskarien kopuruan. Lehen aurreratutakoa ekarriz, nazioarteko adingabeen bahiketetan Hagako Hitzarmenen aplikazioari buruzko lehenengo datu bilketa 1999an burutu zen eta hurrengo taulak geroztik gaur egunera arte emandako kasuen alderaketa erakusten du. Argi geratzen da emandako igoeraren garrantzia zenbait Estatutan, besteak beste:

Herraldea	1999an jasotako eskariak ⁷	2015an jasotako eskariak	+/-	% igoera
AEB	210	313	+103	%49
Erresuma Batua	161	294	+133	%82
Espainia	87	92	+5	%5,75
Alemania	80	172	+92	%115
Italia	46	55	+9	%19,5
Frantzia	42	105	+63	%150
Suitza	39	40	+1	%2,5
Polonia	18	49	+31	%172
Hungaria	13	14	+1	%7,7
Danimarka	12	15	+3	%25
Txekiar Errepublika	11	33	+22	%200
Errumania	7	74	+67	%957

⁷ Lowe, N., Armstrong, S., Mathias, A., “Análisis estadístico de las solicitudes presentadas en 1999 en aplicación del Convenio de La Haya de 25 de octubre de 1980 sobre los aspectos civiles de la sustracción internacional de menores”, aurr. dok. 3. zkia, 2001ko martxoa (2001eko azaroan berrikusitako bertsioa).

2. Kasuen trataera eta emaitza.

Itzulera eskariak bide ezberdinetatik bideratu daitezke eta askotan kasuak ez dira epaitegietara iristen. 2015ean 2.002 kasuren bilakaeraren inguruko informazioa jaso zuten ikertzaileek, hauen arabera, kasuen %45ean adingabeen itzulera eman zen (909), %28 (561) epai bidez aginduz eta %12 (348) bahitzailearen borondatez. Bestalde, nazioarteko araudiek jasotako itzulera salbuespenak aplikatuz, %12an (243) epai baten bidez itzulera ukatua izan zen.

Datu hauek erakusten dute gutxi gorabehera jasotako kasuen %40 epai baten bitartez ebazten dela eta hauen ia %70 itzulera agindu batekin amaitzen dela.

Itzulera ukatzen duten epaiek gorakada izan zuten 2015. urtera arte. Alegia, 1999koak dira eskuragarri dauden lehenengo datuak eta urte hartan kasuen %11k amaitu zuten ukapenean, 2003an %13 eta 2008an %15. Ibilbide berdina jarraituko balitz, 2015ean kopuru handiago bat lortuko zen, baina jaitsiera eman da.

Dena dela, epai bidez ukatuak izan diren itzuleratan emandako arrazoiak ezberdinak izan dira eta askotan arrazoi bat baina gehiago erabili da (%16); hala ere, asko erabili den salbuespena izan da Hagako Hitzarmenak 13.1.b artikuluan jasotakoa (%25), ama izanik gehienetan bide honetara jotzen duena (%72,3).

Hagako Hitzarmeneko 13.1.b artikulua honela dio: *“No obstante lo dispuesto en el artículo precedente, la autoridad judicial o administrativa del Estado requerido no está obligada a ordenarla restitución del menor si la persona, institución u otro organismo que se opone a su restitución demuestra que: (...) b) Existe un grave riesgo de que la restitución del menor lo exponga a un peligro físico o psíquico o que de cualquier otra manera ponga al menor en una situación intolerable.”* Hortaz, berehalako itzuleraren arau orokorraren salbuespen gisa, itzulera ukatua izan daiteke haren ondorioz adingabea arrisku psikiko edo fisiko batera aurkezten bada.

III. Bahiketen atzean dagoen genero indarkeria eta Hagako Konferentziaren erantzuna.


1. Bahitzailearen bilakaera eta testuinguru aldaketa.

Datuek erakutsi dute nazioarteko adingabeen bahiketa ez dela murriztu, aurkakoa baizik: azken urteetan arazoa areagotu egin da. Baina, honez gain eta lanaren xedea jarraituz, azken urteetan bilakaera garrantzitsu bat eman da adituen alarmak piztu dituen: bahitzailea haurren aita izatetik haurren ama izatera pasa da gehiengo oso altu batean, horregatik, genero indarkeriak bahiketa hauetan izan duten eragina aztertu da eta nazioarteko Zuzenbide pribatuko mahaian eztabaidan dagoen gaia izatera pasa da.

Izan ere, aurreko puntun aztertutako ikerketako kasu guztietan bahitzailearen informazioa ezagutzen ez bada ere, 1.776 kasuetatik ondorioztatu daiteke 2015eko bahitzaileen %73 haurren ama dela. Zifra hauek 2008an burututako lan berarekin alderatuz, ikusi daiteke zazpi urteetan %4ko igoera eman dela eta 2003ko zifrekin alderatuta %5ekoa. Urteek aurrera egin ahala bahitzailearen izaera aldatuz joan da eta, datuek erakusten duten eran, azken urteetan kasuen gehiengo altu bat adingabearen amaren eskutik ematen dira.


Ikuspegi global hau Europar Batasunera ekarriz, kasuen %78,78an bahitzailea ama izan da, alegia, 509 kasutatik 401ean.

Relationship between the taking person and the child



Lowe, N. eta Stephens, V., *A Statistical Analysis of Applications...* op cit. 7. or.

Europar Batasuneko bahitzailearen izaera



GRAL-aren autoreak egindako grafika.

Gainera, esan behar da bahitzailea den ama %91-n haurraren zaintza eskubidearen tituluduna dela.

Datu hauek erakutsi dute, beraz, haien haurrekin ihes egiten duten gurasoen gehiengoa ama direla eta arrisku larriaren salbuespena baliatzen duten gehiengoa ere amak direla. Ez dago estatistika osorik etxeko indarkeriaren akusazioak zenbat kasutan inplikatzan diren jakiteko, baina egin diren ikerketetek erakutsitako datuek agerian uzten dute fenomeno horrek esanahi garrantzitsua duela amek haurrak Estatu batetik beste batera eramaten dituztenean⁸.

Errealitate hau Hagako Hitzarmenarekin lotuz, eta sarreran aurreratu den bezala, Hitzarmena egin zeneko testuinguruan haurraren zaintza-eskubiderik ez zuen gurasoa izaten zen ohiko bahitzailea, aldi berean haurraren aita izaten zena, eta honek harreman gutxiago izan ohi zuen haurrarekin⁹. Horregatik, egileek lotura bat egin zuten eta adingabearen interes gorena defendatzeko eta bermatzeko automatizatu egin zuten haren berehalako itzulera bere ohiko egoitzako Estatura.

Gaur egun, aldiz, egoera ezberdina da eta ikusi bezala askotan adingabearen amak etxeko indarkeriatik ihesean jotzen du beste Estatu batera bere eta bere haurraren ongizatea babesteko.

Amek beste Estatu batera ihes egiten dute bertan lotura gehiago izan ohi dituztelako, era horretara egoerari aurre egiteko laguntza bideragarri ikusten dute. Azken batean, etxeko indarkeriaren biktima izatean isolatuta sentitzea ohikoa da eta bereziki zaugarri aurkitzen diren egoera horretan ikusten duten irtenbide bakarra izaten da¹⁰. Hala

⁸ Momoh, O., "The Need of Cross-Border Protective Measures in Return Proceedings", *Domestic Violence and Parental Child Abduction* Domestic Violence and Parental Child Abduction: The Protection of Abducting Mothers in Return Proceedings, Intersentia, 2022, 67-80 or.

⁹ Jiménez Blanco, M. D. P., *Litigios sobre la custodia y sustracción internacional de menores*, Madrid, Marcial Pons, 2008, 9-20 or.

¹⁰ Kaye, M. "The Hague Convention and the flight from domestic violence: how women and children are being returned by coach and four." *International journal of law, policy and the family*, vol. 13, 2. zkia, 1999, 191-212 or.

ere, ihes eginda ere, adingabearen aitak bahiketaren salaketa tarteratzean askotan ematen da berehalako itzulera, hau baita nazioarteko tresnek aurreikusten duten irtenbidea¹¹.

Ondorioz, testuinguru aldaketa eman bada ere Hagako Hitzarmenean ez da aldaketarik eman 44 urtetan. Hitzarmenaren sortzaileetako batek, Adair Dyerrek, bere garaian adierazi zuena gogora ekartzea interesgarria da zurruntasun honen aurrean: “nire ustez, legegintzako itun baten bizitza baliagarria 30 urtekoa izan beharko litzateke gutxienez. Malgutasunak eta etengabeko zaintzak bizitza baliagarria luza dezakete”¹², alegia, gizartean ematen diren aldaketekin bat egin beharko luke Hitzarmen batek bere baliagarritasuna urte askoz mantentzeko.

Baina, erreformarik eman ez bada ere, Hagako Konferentzia egoeraz jakitun da: Bosgarren Batzorde Bereziak bahitzaileen bi heren zaintza eskubidedun titular izatea berretsi du eta arazo hau Hitzarmenaren zirriborroetan aurreikusi gabea zela aitortu da¹³.

2. *Hagako Konferentziaren irtenbidea.*

Egoera honen aurrean egile batzuk Hitzarmenaren Erreforma bat eskatzen dute, emandako arazoei egokitutako irtenbideak lortzeko¹⁴.

Hala ere, Konferentziak ez du beharrezkoa ikusten Hitzarmena erreformatzea, dagoeneko dauden arauak hobeto aplikatu behar direla dio, horregatik, Zazpigarren

¹¹ Ruiz Sutil, M. C., “El enfoque de género en la sustracción internacional de menores”, J. Gil Ruiz (koord.), *El Convenio de Estambul como marco de derecho antisubordinador*, Madrid, Dykinson, 2018, 247-278. or.

¹² Dyer, A., “To Celebrate a Score of Years” *New York University Journal of International Law and Politics*, 33 zkia, 2000, 1-16 or.

¹³ HGGH, “Fifth Meeting of the Special Commission to Review the Operation of the 1980 and 1996 Hague Conventions (30 October - 9 November 2006): Conclusions and Recommendations”, *Hague Conference on Private International Law, The Hague*, 2006, Introduction.

¹⁴ Ruiz Sutil, M.C., “El enfoque de género...” *op cit.*

Batzorde Berezian Jardunbide Egokien Gidaliburua¹⁵ sortzea bultzatu zuten 13.1.b artikulua aplikazio eta interpretazio argitzeko helburuarekin¹⁶.

Lan horretan Konferentziak ez dio etxeko indarkeriari azpipuntu oso bat dedikatu nahi izan, ulertuz honek sortutako arriskua ez dela bestelako arrisku motetatik ezberdintzen¹⁷, baina aipamenak egin zaizkio eta kasu horietan arriskuaren izatea nola ulertu argitzen saiatu dira.

Hain zuzen ere, etxeko indarkeriari dagokionez hurrengo adierazten da 58. puntuan: *“evidence of the existence of a situation of domestic violence, in and of itself, is (...) not sufficient to establish the existence of a grave risk to the child”*. Hortaz, etxeko indarkeriaren alegazio hutsa 13.1.b artikulua aplikatzeko nahikoa ez denez, adingabea ohiko egoitzako Estatura itzultzeak arrisku nahikoa sortzen duen aztertu behar da. Epaitegiei adierazi nahi zaie etorkizunera begirako arriskua aztertu behar dela, ez dela nahikoa atzera begira eman denarekin.

Gidaliburu honek 1980ko Hagako Hitzarmenaren abiapuntu bera du: berehalako itzulera agintzea adingabearen interes gorenarekin bat eginez. Lan horren bitartez lagundu nahi izan zaie epaitegiei haien jardutearen mugak zehazten; alegia, itzuleraren inguruan erabaki behar duen epaitegian 13.1.b artikulua salbuespena alegatzen denean, epaileek haren existentziaren inguruko balorazio bat burutu behar dute (informazioa eskatuz, neurri egokiak hartu diren ikusiz...) baina ezingo dira gehiegi luzatu honek kasuan sor dezakeen kaltea dela eta.

Egoera honetan, epaitegietan eztabaida handiak sortu dira eta arrisku larriaren izatea frogatutzat emateko urteetan zehar irizpide eta interpretazio ezberdinak eman dira, beti prozesuaren azkartasuna oztopatu gabe.

¹⁵ Hague Conference on Private International Law, “Guide to Good Practice under the HCCH Convention of 25 October 1980, on the Civil Aspects of International Child Abduction - Part IV - Article 13 (1) (b)”, 2020.

¹⁶ Rodríguez Pineau, E., “La oposición al retorno del menor secuestrado: movimientos en Bruselas y La Haya”, *Revista electrónica de estudios internacionales (REEI)*, 35 zkia, “estudios”, 2018,

¹⁷ *Ibidem*.

Hala ere, etxeko indarkeriaren testuingurua kontuan hartuta, ez da komeni prozesuaren azkartasunarekin epaitegiak itsutzea, ondorio gisa biktimaren alegazioak aztertu gabe baztertzea eman daitekeelako eta arrisku larri posible bat aztertu gabe utziko litzatekeelako¹⁸.

Aurrerago aztertuko da Giza Eskubideen Europako Auzitegiak emandako interpretazioa, baina aurreratu daiteke epaitegiek indakeria akusazioak ebaluatzearen ikuspegia jarraitzen dutela, aurkeztu diren frogak aztertuz indakeria badagoen edo ez ikusteko eta, kasuak kasu, beharrezkoak diren babes neurriak hartuz¹⁹.

IV. Europar Batasuneko araudi egoera.

Nazioarteko adingabeen bahiketaren problematika Europar Batasunean ere isladatu da eta urteak pasa ahala zifrak gora egiten dute, baita ama bahitzaileak ere.

Lehen aurreratu bezala, Hagako Hitzarmenaz gain, Bursela II *ter* Erregelamendua indarrean dago Europar Batasunean. Hagako Hitzarmenaren eta Brusela II *ter* Erregelamenduaren arteko harremana finkatzeko Erregelamenduak berak aurreikusten du bere izaera osagarria²⁰. Bada nor uste duena Europako Erregelamendua ez zela beharrezkoa adingabeen nazioarteko bahiketa arautzerako orduan²¹, Hitzarmeneko arauak badaudelako, baina europar legegileak nazioarteko tresna hau baliatu du Estatu Kideen arteko itzulera sistema indartzeko.

¹⁸ Trimmings, K., Momoh, O., "Intersection between domestic violence and international parental child abduction: Protection of abducting mothers in return proceedings", *International journal of law, policy and the family*, vol. 35,1 zkia.

¹⁹ *Ibidem*.

²⁰ 2019/1111 Erregelamendua, 2019ko ekainaren 25ekoa, 22. artikulua eta 40. kontuan hartzekoa.

²¹ Rodríguez Pineau, E., "La oposición al retorno del menor secuestrado...", *loc cit*.

1. *Brusela II bis-etik Brusela II ter-era aldaketa.*

2022az geroztik indarrean dagoen Brusela II *ter* Erreelamendua, Brusela II *bis*²² gisa ezagutzen den 2003/2201 Erregelamenduaren berrikuntza bat da. Erregelamenduaren gai eremua, izenburuak erakusten duen eran, nahiko zabala da eta hainbat eremutan izan da erreformatua, edonola ere, puntu honetan adingabeen nazioarteko bahiketaren ikuspegitik izandako berrikuntzak aztertuko dira.

Lehenik eta behin, esan behar da, oro har, adingabea entzuna izateko aukerari garrantzi handiagoa eman zaiola, haurrak duen eskubide gisa bermatzen eta ez epailearen aukera gisa. Honela, epaitegiak behartuta daude haien iritzi propioa izateko gaitasuna duten adingabeei era askean iritziak emateko aukera bermatzera eta hauei dagokien garrantzia ematera. Era berean, mediazioari ere bide bat irekitzen zaio, gatazkak ebazteko alternatiba gisa aurreikusiz 25. artikuluan.

Bestalde, Brusela II *bis*-ek bazuen oso kritikatu izan zen xedapen bat²³, azken hitzaren sistema delakoa aurreikusten zuena²⁴. Honen arabera, Hagako Hitzarmeneko 13.1.b artikuluko salbuespenaren ondorioz adingabearen itzulera ukatzen denean, bahiketaren aurretik adingabeak zuen ohiko egoitzako Estatu kideari ahalmena ematen zaio adingabearen itzulera agintzeko. Azken hitzaren sistema deitzen zaio azaldutako ahalmen horrekin azken erabakia hartzeko aukera ematen zaiolako ohiko egoitzaren Estatuari.

Xedapen honek bazuen helburu bat, hain zuzen ere, esan daiteke aurretiaz zaintza eskubidearen gatazka ezagutzen duen Estatuak egoera nahikoa ezagutzen duela eta adingabearen interes gorena kontuan hartutako ebazpen bat ematen dezakeela, egoera osoki baloratuz; hau da, Estatu errekerituak itzulera agindu edo ukatzean ez du zaintzaren gaia

²² 2003ko azaroaren 27ko 2003/2201 Erregelamendua, ezkontzarekin zerrikusia duten gaietan eta guraso erantzukizunari gaitan emandako ebazpenen nazioarteko judiziorako eskuduntza, aintzatespena eta egikaritzari buruzkoa (EBAO 338 zkia, 2003ko abenduaren 23koa).

²³ Beaumont, P., Walker, L., Holliday, J., "Conflicts of EU Courts on Child Abduction: The reality of Article 11(6)-(8) proceedings across the EU", *Journal of Private International Law*, vol.12, 2016. 211-260 or.

²⁴ 2003/2201 Erregelamendua, 2003ko azaroaren 27koa, 11.8 artikulua.

ukitu edo aztertzen eta, beraz, baliteke egoera osotasunean ikusita epaitegiek erabakitzea adingabearen interes gorenarekin bat datorrela haren itzulera²⁵.

Baliteke, arrazoi horregatik europar legegileak xedapena Brusela II *ter*-rean ere mantentzea erabakitzea²⁶, aldaketa txiki batzuekin. Edonola ere, funtsean ez da artikulua funtsa aldatu eta, ondorioz, Brusela II *bis*-eri egindako kritika berak erabili daitezke xedapen honen aurka. Besteak beste, azken hitzaren sistema hau ez litzateke beharrezkoa izan beharko Batasuneko kide diren Estatuak elkarrekiko duten konfiantza printzipioaren harira, alegia, Estatu kide batek konfiantza izan behar du beste Estatuan Hagako Hitzarmena egoki aplikatua izan dela sinisteko, azken batean arrazoi batengatik aitortzen zaie eskuduntza itzulerako Estatu errekerituei²⁷.

Gainera, beste behin Erregelamenduak ez dio zuzenean etxeko indarkeriari aurre egiten eta, beraz, gerta daiteke ohiko egoitzako Estatuak emandako itzulera agindua ez izatea aproposa egoerarako eta, ondorioz, adingabea eta ama bahitzailea arriskuaren jatorrira itzultzea²⁸.

Azkenik, Brusela II *ter*-ean mantendu egin da²⁹ Brusela II *bis*-ean³⁰ jasotzen zen beste aukera bat: Hagako Hitzarmeneko 13.1.b artikulua salbuespena baztertzea, adingabea ohiko egoitzako Estatuan babesteko neurri egokiak hartu direla egiaztatzen bada. Erreformarekin gehikuntza bat egin da organo jurisdikzionalen arteko elkarlaguntza bultzatzeko, hau da, orain itzulera eskatu duenari dagokio frogatzea neurri egokiak hartuak izan direla. Aldaketa honekin lana erraztu nahi da, adingabea aurkitzen zen Estatuako organo jurisdikzionalentzat zaila baitzen egiaztatzea ea ohiko egoitzan babes neurriak hartu ziren eta hauek egokiak ote ziren³¹.

²⁵ Rodríguez Pineau, E., “La oposición al retorno del menor secuestrado...”, *loc. cit.*

²⁶ 2019/1111 Erregelamendua, 2019ko ekainaren 25ekoa, 29. artikulua.

²⁷ Beaumont, P., Walker, L., Holliday, J., “Conflicts of EU Courts on Child Abduction...”, *loc. cit.*

²⁸ Rodríguez Pineau, E., “La oposición al retorno del menor secuestrado...”, *loc. cit.*

²⁹ 2019/1111 Erregelamendua, 2019ko ekainaren 25ekoa, 27.3 artikulua.

³⁰ 2003/2201 Erregelamendua, 2003ko azaroaren 27koa, 11.4 artikulua.

³¹ González Marimon, M., “La regulación de la sustracción internacional de menores en el Reglamento Bruselas II Ter y sus principales novedades”, *Cuadernos de derecho transnacional*, Vol. 14, 2. zkia, 2022, 286-312 or.

Xedapen honek praktikan garrantzi berezia du, Europar Batasuneko kideen artean ematen denean auzia epaitegiek aplikatu ohi dutelako eta posible delako konfiantza horretan erorita epaitegiak arazoa behar bezala ez aztertzea eta ohiko egoitzako Estatuari pasatzea lana. Hau da, hain zuzen ere, O.C.I. eta beste batzuk Errumaniaren aurka³² 2017an eramandako auzian gertatu zena.

Kasuan kokatzeko, errumaniar naziokotasuneko emakume bat eta italiar naziokotasuneko gizon bat ezkondu eta batera bizi ziren Italian haien bi seme-alabekin. Handik urte batzuetara laurak oporretara joan ziren Errumaniara, baina aita Italiara itzuli ondoren amak jakinarazi zion ez zuela Italiara itzultzeko asmorik eta hurrekin Errumanian geratuko zela.

Aitak adingabeen nazioarteko bahiketagatik errumaniar epaitegiei itzulera agindua emateko eskatu zien, ez baitzuen bere onespina eman haurrak era iraunkorrean Errumanian geratzeko. Ama eskari honen aurka agertu zen, adieraziz aitak askotan erabili ohi zuela indarkeria bere aurka eta haien haurren aurka, jarrera oldarkorra erakutsiz, eta Hagako Hitzarmeneko 13.1.b artikuluko salbuespenaren aplikazioa eskatu zuen.

Hala eta guztiz ere, Errumaniako epaitegiak itzulera agindua eman zuen, besteak beste esanez Europar Batasuneko konfiantzazko eremuan italiar sisteman sinisten zutela indarkeriaren aurrean erantzun apropos bat emateko Brusela II *bis* Erregelamendua jarraituz.

Erantzun honen aurrean amak, auzi jartzaileak, Giza Eskubideen Europako Auzitegira jo zuen babes eske, adieraziz errumaniar autoritateek erantzukizun guztia italiar autoritateei igorri ziela, bere obligazio positiboa saihestuz adingabeak babesteko etxeko indarkeriaren testuinguruan eta haurrengan itzulerak sortu zezakeen trauma psikologikoa ez aztertuz. Aldiz, errumaniar Gobernuak adierazi zuten igorpen horrekin italiar sisteman zuten konfiantza erakutsi zutela, Europar Batasuneko kide izanda zor zitzaiona, gai izango zelako adingabearen aurkako indarkeriaren kasuan beharrezko neurriak hartzeko.

³² GEEAko Epaia, O.C.I. vs. Errumania, 49450/17 zkia, 2019ko maiatzaren 21ekoa.

Auzitegiak amaren aldeko jokabidea hartu zuen, argi utzi zuen Erregelamenduko xedapenak ez duela esan nahi Estatu hartzailea behartuta dagoenik haurrak berezko ohiko egoitzako Estatura itzultzera arrisku larri bat gertatzeko aukera dagoenean: *“the existence of mutual trust between child-protection authorities does not mean that the State to which children have been wrongfully removed is obliged to send them back to an environment where they will incur a grave risk of domestic violence solely because the authorities in the State in which the child had its habitual residence are capable of dealing with cases of domestic child abuse³³.”*

Honek erakusten du Estatu kideen arteko konfiantzan oinarrituta edozein erabaki ezin dela hartu, alegia, nazioarteko adingabeen bahiketan beharrezkoa da agertzen diren inguruabarrak behar bezala aztertzea, Erregelamenduko xedapenak ez du bide ematen eraitsu batean arazoari amaiera ematera.

Orokorrean eman diren aldaketak aztertuz, doktrinarentzat ahulak izan dira ez baitute praktikan ondorio garrantzitsurik ekarri eta haien aplikazioa ikusteko zaila delako. Erregeleமானედုအရေ funtzionamendua hobetzera bideratutako aldaketak dira³⁴, baina badirudi ez dutela gaur egungo bahiketen testuingurua kontuan hartu.

Etxeko indarkeriaren ondorioz ematen diren bahiketei ez zaie aurre egin zuzenean, eta agerian geratzen da egoera hauetan ama bahitzaileak jasotako babes falta. Badirudi Europaren integrazioaren interesak nagusitzen direla partikularren egoerak konpontzearen gainetik eta adingabeen bahitzea bezalako gai sentikorretan ez da erantzun egokiena³⁵.

³³ GEEAko Epaia, O.C.I. vs. Errumania, 49450/17 zkia, 2019ko maiatzaren 21ekoa, § 45.

³⁴ Borrás, A., “Bruselas II, Bruselas II BIS, Bruselas II TER”, *Revista electrónica de estudios internacionales (REEI)*, 38. zkia, “tribuna”, 2019.

³⁵ Rodríguez Pineau, E., “La oposición al retorno del menor secuestrado...” *loc. cit.*

2. *Arauketan genero ikuspegia sartzeko aukera galdua: Istanbulleko Hitzarmenaren inplementazioa.*

Erreformatik ekarritako aldaketak aztertuta, ondorioztatu daiteke berriro ere nazioarteko tresnen helburu nagusia adingabearen berehalako itzultzea dela, genero indarkeriaren egoerari aurre egin gabe eta irtenbide bat eman gabe kasu horiei³⁶. Ikerketek erakutsi dute bahiketen atzean dagoen etxeko indarkeria ukatu ezin den kausa bat dela eta, horregatik, geroz eta egile gehiagok beharrezko ikusten dute arazoari zuzenean aurre egiten duten neurrien beharra³⁷, genero ikuspegia aztertu gabe aldaketak egiten jarraitzen bada ez delako irtenbide bat lortuko.

Genero ikuspegi hau Europako arautegian sartzeko aurkeztutako aukera bat Istanbulleko Hitzarmena Brusela II *ter*-ean inplementatzearena da³⁸. Sarreran aurreratu bezala, Istanbulleko Hitzarmena emakumeen eta nesken aurkako indarkeria jazartzera eta desagertaraztera bideratutako tresna da da, era berean babeska eskainiz indarkeriaren biktimak izan direnei eta haien seme-alabei³⁹. Helburu hau lortzeko hainbat neurri ezberdin jasotzen dira, batzuk aurrezaintzara bideratuak, beste batzuk heziketara, biktimen babesera...

Azpimarratzekoa da Brusela II *ter*-en kide den Estatu oro ez dela Hitzarmen honen kide, are gutxiago Hagako Konferentziko kide diren Estatu guztiak, horregatik, tresna hauen bitartez nazioarteko adingabeen bahiketari aurre egiteko Hitzarmen honekin lotura egon behar dela uste duena dago⁴⁰, kontuan hartu behar delako egoera hauen atzean aurkitzen den egiturazko indarkeria.

Hori lortzeko, Brusela II *ter* sortze prozesuan zegoenean Soledad Cabezón Ruíz Europako Parlamentuko kide zenak testuari hurrengoa gehitzea proposatu zuen: “*en caso de urgencia, las disposiciones del presente Reglamento no impedirán que las autoridades*

³⁶ Ruiz Sutil, M. C., “El enfoque de género...”, *loc cit.*

³⁷ *Ibidem.*

³⁸ Ruiz Sutil, M. C., “Implementación del Convenio de Estambul...”, *loc. cit.*

³⁹ Istanbulleko Hitzarmeneko 1. artikulua.

⁴⁰ Ruiz Sutil, M. C., “Implementación del Convenio de Estambul...”, *loc. cit.*

*de un Estado miembro no sean competentes para conocer del fondo del asunto adopten medidas provisionales, incluidas las protectoras, por lo que se refiere a la persona o a los bienes de un niño que se encuentren en ese Estado miembro o, en caso de violencia doméstica o de género, con arreglo a la definición del Convenio del Consejo de Europa sobre prevención y lucha contra la violencia contra las mujeres y la violencia doméstica (Convenio de Estambul)*⁴¹”. Era honetara saiatu ziren Istanbuleko Hitzarmena Erregelamenduarekin zuzenean lotzen, baina ez zen amaierara iritsi. Era egokian egokitzea lortu izan balitz, posible izango litzateke genero indarkeriaren ondorioz emandako adingabeen bahiketen kopurua murriztea edo gutxienez hauek eman ondoren epaitegiek itzuleraren alde mantentzen duten jarrera aldatzea zuzenean fokua etxeko indarkerian eta haren inguruko neurrietan jarriko litzatekelako⁴².

Horregatik, Brusela II *ter*-ean faltan somatzen da Istanbuleko Hitzarmenean jasotakoarekiko lotura bat, adingabeen bahiketa bezalako gai garrantzitsu batean beharrezkoa den genero ikuspegia gehitzeko aukera posible bat zelako eta europar legegileak aukera bat izan zuelako.

Edonola ere, gaur egun ez dago harremanik edo loturarik eginda arau bidez Istanbuleko Hitzarmenaren eta adingabeen nazioarteko bahiketaren artean.

Hagako Hitzarmenarekin lotura eginez, bi Hitzarmenak batera aztertzen badira, bi arauetatik helburu nagusi ezberdinak ateratzen dira; alde batetik, Hagako Hitzarmenak erakusten du haur bat ez dela era ez-zilegian mugitua izan behar, ez dela gurasoen ondare bat eta beraz haren berehalako itzulera aurreikusten da xede gisa eta, bestetik, Istanbuleko Hitzarmenak helburu bezala indarkeriaren aurrean haurrak babestea du eta, horregatik, adierazten du haur bat ezin dela utzi etxeko indarkeriaren aurreko arrisku larrian⁴³. Egoera honen aurrean epaitegiek dute oreka puntua aurkitzeko karga, bi Hitzarmenen parte diren

⁴¹ Soledad Cabezón Ruízen iritzia, 2017ko maiatzaren 15ean emana Gai Juridikoen Batzorderako eskari batzarrean.

⁴² Ruiz Sutil, M. C., “Implementación del Convenio de Estambul...” *loc. cit.*

⁴³ Yalaz, H., “L’enlèvement international d’enfant et la lutte contre les violences domestiques”, *Droit de la Famille*, 3 zkia, 2024, 21-24 or.

Estatuak direnean auziaren aldeak epaitegiak lortu beharko du adingabearen interes gorena errespetatzea eta adingabea babesteko emaitza bat topatzea⁴⁴.

V. Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren interpretazioa.

Datuek erakusten duten bezala, Hagako Hitzarmenaren eremuan adingabearen itzulera ukatzeko gehien erabiltzen den salbuespena 13.1.b artikulua jasotzen duena da, alegia, itzulerak adingabeari arrisku larri bat ekartzea.

Hori horrela, salbuespen hau emateak ez du esan nahi itzuleraren ukapena automatikoa denik, hortaz, adingabea aurkitzen den Estatuko epaitegiek erabakiko dute egoeraren arabera itzulera agindu edo ez. Honek praktikan eztabaidak ekarri ditu, diskrezionalitatea dutelako epaileek eremu honetan, ez baita irizpiderik jasotzen arrisku larria noiz ematen den balioesteko.

Aurreko puntuetan aztertu den bezala, Hagako Hitzarmeneko eta, Europar Batasunean, Erregelamenduetako xedapenek ez dute zuzenean genero indarkeriari erreferentziarik jasotzen. Genero indarkeriaren alegazioak daudenean Hagako Hitzarmeneko 13.1.b artikuluko salbuespena eskatu ohi da, baina arauen faltan epaitegiek sortu dute salbuespenaren eta genero indarkeriaren arteko zurbia, alegia, jurisprudenzia bitartez finkatu dira salbuespena aplikatu ahal izateko salbuespenak.

1. Arrisku larriaren azterketarako irizpideak.

Giza Eskubideen Europako Auzitegia behin baina gehiagotan azaldu da nazioarteko adingabeen bahiketa kasuetan. Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren⁴⁵ (aurrerantzean, GEEH) 8. artikuluan bizitza pribatua eta familia-bizitza errespetatzeko eskubidea jasotzen da eta eskubide honen urratzea eman daiteke 13.1.b artikulua salbuespena argudiatzen

⁴⁴ *Ibidem*.

⁴⁵ Giza Eskubideen eta Oinarrizko Askatasunen Europako Hitzarmena, 1950eko azaroaren 4koa.

denean arrisku larriaren azterketa bat burutzen ez bada eta adingabearen itzulera agintzen bada.

Egoera beste bat izango balitz, irtenbide erraza emango litzateke epaitegiei kasuaren azterketa sakon bat egitera behartzea, baina, prozesu hauetan azkartasun premia dagoenez ezin zaie horretara behartu. Hor sortzen da, beraz, epaitegietan arazoa: noraino sartu behar dira epaitegiak arrisku larriaren izatea ikertzera GEEH-ko 8. artikulua urratua izan ez dadin eta, era berean, prozesua eraginkorra izan dadin?

Lan honetan zehar ikusi ahal izan denez, Hagako Hitzarmenak urte asko ditu indarrean eta haren aplikazioan garapen bat izan du. Era berean, epaitegietan ere aldaketak eman dira eta Hitzarmenaren xedapenak interpretatzeko irizpideak aldatuz joan dira.

Giza Eskubideen Europako Auzitegiari dagokionez, Hagako Hitzarmenaren 13.1.b artikulua interpretazioari buruz irizpide ezberdinak finkatu izan dira arrisku larriaren balorazio bat egiterako garaian.

Kasu oso ezagun bat ebatzi zen 2010ean: Neulinger eta Shuruk Suitzaren aurka⁴⁶. Epai honek adingabeen nazioarteko bahiketako jurisprudentzian aldaketa handi bat suposatu zuen, Hagako Hitzarmenaren eta Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren interpretazio bateratua nola burutu zehaztu zuelako.

Auzi horren gertakariak laburbilduz, emakume suitzar bat gizon israeldar batekin ezkondu zen eta Israelen haur bat izan zuten. Bikoteak dibortziatea erabaki zuen, honela, amari aitortu zitzaion zaintza eskubidea eta aitari bisita eskubidea. Amak, aitaren baimenik gabe eta Israeltik irteteko zuen debekua errespetatu gabe, haurra eramane zuen berekin Suitzara, itzultzeko asmorik gabe. Honen aurrean, aitak Suitzako epaitegiei adingabearen itzulera agin zezaten eskatu zien, eta ama honen aurka agertu zen Hagako Hitzarmenaren 13.1.b artikuluko salbuespena aplikatzea eskatuz. Adierazi zuen haurra itzultzean hura arrisku larripean jarriko zela aita sekta judutar batean sartu zelako eta ez zuelako behar

⁴⁶ GEEAko Epaia (SN), Neulinger eta Shuruk vs. Suitza, 56030/07 zkia, 2010eko uztailaren 6koa.

bezala adingabea zainduko. Suitzako epaitegiek itzulera agintzea erabaki zuten eta nahiz eta amak ebazpenaren aurkaratu bide judizialek erabakia ez zen aldatu.

Kasua GEEA-ra iritsi zen eta amak GEEH.ko 8. urrapena eman izana alegatu zuen, ez zitziolako iruditu Suitzako epaitegiek etxeko indarkeriaren testuingurua nahikoa aztertu zutenik eta horren ondorioz hartutako itzulera erabakia ez zelkoa egokia. Auzitegiak amari arrazoia eman zion eta aitortu zuen 8. artikulua urrapena eman zela, argituz adingabeen itzulera kasuetan bermatuta geratu behar dela parte diren pertsona guztiek haien eskubideak baliatu ditzaketela eta zehaztu zuen epaitegiek egoera familiarraren eta inguruabar guztien “azterketa sakon bat” burutu beharra zutela: *the Court must ascertain whether the domestic courts conducted an in-depth examination of the entire family situation and of a whole series of factors*⁴⁷.

Hau da, Auzitegiak adierazi zuen Hagako Hitzarmena interpretatuz bahiketa kasu bakoitzean aztertu behar zela zein zen adingabearen interes gorenerako erabakirik hoberena eta hori lortzeko beharrezkoa zela familia egoera ongi aztertzea. Beraz, adingabearen interes gorena bermatzeko inguruabar emozionalak, psikologikoak, materialak... aztertzeraz bideratu zituen epaitegiak.

Ikusten den eran, hori jarraituz epaitegiek azterketa lan sakon bat burutu beharko lukete aurkeztutako kasu bakoitzarentzat eta hau izan zen, hain zuzen ere, doktrinaren aldetik kritikatu izan zen ikuspegia. Alegia, epaitegiei eskatzen zitzaie inguruabarren azterketa zehatz eta sakon bat burutzea eta hau ez zen bateragarri adingabeen berehalako itzulerearen prozesuak eskatzen duen azkartasunarekin eta, beraz, adingabearen interes gorenarekin (gogoan izanik berehalako itzulera adingabearen interes gorenarekin lotuta ulertzen dela)⁴⁸.

⁴⁷GEEAko Epaia (SN), Neulinger eta Shuruk vs. Suitza, 56030/07 zkia, 2010eko uztailearen 6koa, § 139.

⁴⁸ Celis Aguilar, M. M., “El papel controversial del TEDH en la interpretación del Convenio de La Haya de 25 de octubre de 1980 sobre los Aspectos Civiles de la Sustracción Internacional de Menores: Especial referencia a los casos Neulinger y Shuruk c. Suiza y X c. Letonia” *Anuario Colombiano de Derecho Internacional*, 13. zkia., 2020, 209-249 or.

Epai eztabaidagarri honen ondoren, 2013an gaur egunera arte mantentzen den jurisprudentzia finkatu zuen Auzitegiak X. Letoniaren aurkako⁴⁹ kasuan. Neulingerren kasuak jasotako kritika askoren ondoren, epai honen bitartez nazioarteko bi hitzarmenen arteko harremanerako baldintza zehatz eta, doktrinaren ustez⁵⁰, egokiagoak finkatu zituen GEEA-k. Hala ere, ez zuen atzera bota Neulingerren kasuko epaia.

Kasu honetako gertakariak hurrengoak dira: letoniar naziokotasuna zuen amak eta aita australiarrak haur bat izan zuten. Gurasoak ez ziren ezkondu baina haien arteko harremana okerrera joan zen eta urte gutxietara amak haurrarekin alde egin zuen Letoniara. Bahiketaren ondoren aitari aitortu zitzaion zaintza eskubidea eta honek haurraren itzulera eskatu zuen. Honi erantzunez amak Hitzarmeneko 13.1.b artikuluko salbuespenaren aplikazioa eskatu zuen, esanez haurra amarengandik banatzeak eragin psikologiko kaltegarriak sortuko zizkiola adingabeari eta, gainera, aitak aurrekari penalak zituela eta familiaren aurkako tratu txarrak burutu zituela.

Edonola ere, Letoniako epaitegiak itzulera agindu zuen. Amak ez zuen agindua bete, horrela, aita bertaratu zen Letoniara eta haurra berekin eraman zuen Australiara. Egora honen aurrean amak GEEA-ra jo zuen GEEH-ko 8. artikuluen urrapena eman izanagatik.

Auzitegiak urrapena eman izana aitortu zuen, ulertuz Letoniako epaitegiak ez zituela 13.1.b artikuluen inguruko arazoiketak nahikoa aztertu.

Ebazpen honek irizpide berriak finkatu zituen, esanez GEEH-ko 8. artikulua ez dituela epaileak behartzen egoera familiarraren azterketa sakon oso bat egitera kontuan hartu badira pertsonen interesak era orekatu batean eta beti bahitutako haurrentzat komenigarri den egoera balioztatu bada: Are gehiago, Hagako Hitzarmenaren eta GEEH-aren arteko harremana finkatzeko bi pauso edo baldintza zehaztu ziren: *The Court*

⁴⁹ GEEAko Epaia, X. vs. Letonia, 27853/09 zkia, 2013ko azaroaren 26koa.

⁵⁰ Beaumont, P., Trimmings, K., Walker, L. & Holliday, J., "Child abduction: recent jurisprudence of the European Court of Human Rights", *International & Comparative Law Quarterly*, vol. 64, 1. zkia., 2015, 39-63 or.

*considers that a harmonious interpretation of the European Convention and the Hague Convention (see paragraph 94 above) can be achieved provided that the following two conditions are observed. Firstly, the factors capable of constituting an exception to the child's immediate return in application of Articles 12, 13 and 20 of the Hague Convention, particularly where they are raised by one of the parties to the proceedings, must genuinely be taken into account by the requested court. That court must then make a decision that is sufficiently reasoned on this point, in order to enable the Court to verify that those questions have been effectively examined. Secondly, these factors must be evaluated in the light of Article 8 of the Convention*⁵¹.

Hau da:

1. Itzuleraren aurkako salbuespenak alegatzen dituenean edozein alderdik, epaitegi nazionalek honen inguruko edozein deklarazio kontsideratu beharko du eta kontuan izan beharko du.
2. Salbuespen hauen alegazioen inguruko erabaki arrazoitu bat eman beharko dute epaitegiek, inguruabarren azterketa bat burutu dela erakusteko.

Epai honek jasotako kritikak hobeagoak izan dira, besteak beste, esaten da honek Hagako Hitzarmenaren eta GEEH arteko harremanak argitu dituela.⁵² Begi honez hartutako ebazpena da, adingabeen interesak bermatzen laguntzen baitu, zehaztuz Hitzarmenak aurreikusitako salbuespenak era zurrun batean interpretatu behar direla eta hauen izatea aztertu behar dutela epaileek⁵³.

Ebazpen hauek garrantzitsuak dira gaur egungo testuinguru aldaketan. Hau da, egia da GEEA ez dela sartu etxeko indarkerian edo genero indarkerian espresuki, baina datuek erakusten duten eran geroz eta gehiago dira ama bahitzaileak eta askotan etxeko indarkeriatik ihes egiten dute. Kontuan izan behar da bahitzaile hauen egoera zaugarria,

⁵¹ 2013ko azaroaren 26ko GEEAE, 27853/09 zkia., X vs. Letonia, § 106.

⁵² Celis Aguilar, M. M., "El papel controversial del TEDH...", *loc cit.*

⁵³ Beaumont, P., Trimmings, K., Walker, L. & Holliday, J., "Child abduction: recent jurisprudence...", *loc cit.*

horregatik, beharrezkoa da epaitegien aldetik bermatzea aztertua izango dela adingabearentzat arriskutsua izan daitekeen edozein egoera eta Letoniaren aurkako kasuaren bidez ezarritako irizpideek honetan laguntzen dute⁵⁴.

2. Irizpideen aplikazioa etxeko indarkeria kasuetan.

X. Letoniaren aurkako 2013ko ebazpenaren ondoren, GEEA-k hainbat ebazpen eman ditu nazioarteko adingabeen bahiketaren inguruan eta Hagako Hitzarmeneko 13.1.b artikulua aplikazioaren inguruan eta finkatutako bi pausoak jarraitzen dira arrisku larriaren balorazio egokia egin den ikusteko.

Hala ere, kontuan izan behar da irizpide horiek arrisku larriaren ikuspegi orokor bat betetzen dutela, alegia, ez zaio oraindik ere zuzenean erreferentziarik egiten etxeko indarkerien egoerei. Egoera hauek sentsibilitate berezia badute ere, arriskuaren irizpide orokorrak aplikatzen eta posible da hauek egokienak ez izatea.

Adibide gisa, 2023an ebatzitako kasu bat hartu daiteke: G.K. Zipreren aurka.⁵⁵ Gertakariak azalduz, Zipreko naziokotasuneko emakume bat Amerikako Estatu Batuetan bertako gizon batekin ezkondu zen eta seme bat izan zuten. Hiruak elkarrekin bizi ziren, baina urte batera amak etxeko indarkeriaren salaketa jarri zuen aitaren aurka, bere jarrera kontrolatzailea zela adieraziz eta tratu iraingarriak burutzen zituela adieraziz. Amak “family offence” gisa ezagutzen den eskari bat tarteratu zuen Estatuaren aldetik babes agindu bat jasotzeko indarkeriaren aurrean, hau ebatzi bitartean epaitegiek aitari debeku bat ezarri zien amari edo haurrari gerturatzeko edota haiekin komunikatzeko.

Auzi hori ebatzi aurretik amak ihes egin zuen Ziprera eta, beraz, bertan behera utzi zuten epaitegiek babes agindua. Aita iheseaz jabetu zenean adingabearen itzulera eskatu zuen, baina amak adierazi zuen adingabearen itzulerarekin haurra arrisku larrian geratuko

⁵⁴ Celis Aguilar, M. M., “El papel controversial del TEDH...”, *loc. cit.*

⁵⁵GEEAko Epaia, G.K. vs. Zipre, 16205/21 zkia, 2023ko otsailaren 21ekoa.

zela azaldutako indarkeria egoeratik, aitzak zituen aurrekari penalengatik eta amarengandik banatzeak eragingo zituen kalte psikologikoengatik.

Psikologo adituen informeak gehitu nahi izan zituen haurren egokitzea erakusteko eta grabaketak aitaren jarrera oldarkorra frogatzeko, baina hasiera batean gehitu ez izanagatik epaitegiak ez zituen onartu eta prozesua gehiegi ez luzatzearen argumentua erabili zen.

Hori horrela, epaitegiak amaren arrazoiketa baztertzea Hitzarmeneko 13.1.b erabaki zuen bere arrazoiketa ahula kontsideratzeagatik, hau da, ez zuen ikusi arrisku larria nahikoa frogatuta geratu zenik. Ondorioz, Zipreko epaitegiak adingabearen berehalako itzulera agindu zuen Estatu Batuetara.

Zipreko bide judizialak agortuta, amak GEEA-ra jo zuen, GEEH-ko 8. artikuluaurren urrapenagatik. Amak bere eskubidearen urrapena argudiatzeko garaian erabili zuen arrazoi nagusia izan zen Zipreko epaitegiek ez zutela onartu amaren deklarazio osagarria (*supplementary affidavit*) indarkeria erakusteko frogabideak gehitzeko baliatu nahi izan zuena (adituen informeak eta grabaketak). Baina, Auzitegiak Zipreko Gobernuaren aldeko postura hartu zuen, adieraziz, amarena zela indarkeria egon izana erakustearen froga karga eta ez zuela bere betebeharra bete ez zuelako froga nahikoa erantsi arrisku larriaren arrazoiketa bultzatzeko. Ondorioz, ez zuen onartu GEEH-ko 8. artikuluaurren urrapenik eman izana.

Epai honi kritika eginez, esan daiteke Auzitegiak zurrun aplikatu zuela bai arautegia eta baita jurisprudentzia ere, baina egoeraren testuingurua ahaztuta utzi zuela. Hau da, egitateen hasieratik agertzen da etxeko indarkeriaren inguruabarra eta jakina da egoera hauen biktima diren pertsonak zaurgarrigoak direla gizarteko hainbat aspektutan. Horregatik, bai Zipreko epaitegiek eta baita GEEA-k egindako irakurketari genero ikuspegia gehitzea falta zaiola esan daiteke. Biktimentzat zaila izaten da askotan salaketak tarteratzea haien erasotzaileen aurrean eta are zailagoa prozedura batean bere aurrean

agertzea, ondorioz, ezin da arrazoi nahikoa izan adieraztea amak galdeketa ez aprobetxatzea erasotzaileari indarkeriari buruzko galderak egiteko.

GEEA-k gaur egunera arte gaiaren inguruan emandako epaia 2024ko martxokoa da, Verhoeven Frantziaren aurkako auzikoa⁵⁶. Era laburrean egitateak azalduz, frantziar naziokotasuneko emakume batek eta japoniar naziokotasuneko gizon batek ezkontza barruko haur bat izan zuten Japonian. Bikotearen harremana okerrera joan zen denborarekin eta amak adierazi zuen etxeko indarkeriaren biktima zela. Egoera honetan, amak haurra Frantziara eraman zuen aitaren baimenarekin opor batzuk pasatzera baina ez zen berriro ere Japoniara itzuli.

Egoera honen aurrean aitak frantziar autoritateei adingabeen itzulera agintzeko eskatu zien eta amak, Hagako Hitzarmenaren 13.1.b artikuluan oinarrituta, itzulera hau ez agintzeko eskatu zuen. Frantziako lehen instantziako epaitegiak haurren itzulera agindu zuen, amaren alegazioak baztertuz. Besteak beste erabaki zuen ez zegoela aski frogatuta amak jasandako indarkeria eta haren intentsitatea eta, ondorioz, ezin zela ulertu adingabea itzultzean hura arrisku larrian jarriko zenik eta egoera jasanezin bat sufrutuko zuenik.

Amak erabakia aurkaratu bazuen ere epaitegien erantzuna berdina izan zen eta GEEA-ra jo zuenean 8. artikulua alegatuz, Auzitegiak ez zuen onartu urrapena egon zenik. Alegia, Auzitegiaren ustez frantziar epaitegiek amaren alegazioak egoki kontsideratu zituzten eta hauek atzera botatzerako orduan arrazoiketa egokia eskaini zuten, honela, kontraesankorra izan zen bidezko prozesua aurrera eraman zutela ondorioztatzen du.

Baina, kasu honetan lanarekiko interesgarria dena Mārīņš Mits epailearen boto partikularra da. Ebazpenaren ondoren, Mits epaileak haren aurkako iritzia adierazi nahi izan zuen eta Hagako 1980ko Hitzarmenaren egokitasuna aztertu zuen genero indarkeriari bahiketa kasuetan aurre egiterako garaian.

⁵⁶GEEAko Epaia, Verhoeven vs. Frantzia, 19664/20 zkia, 2024ko martxoaren 28koa.

Lehenik eta behin epaileak nazioarteko adingabeen bahiketan emandako testuinguru aldaketa gogora ekarri zuen, adieraziz estatistika zehatzik ez badago ere etxeko indarkeriari dagokionez, bestelako ikerketek agerian utzi dutela azken urteetan fenomeno honek hartutako indarra eta estimatu daitekeela kasuen %70ean etxeko indarkeria aurkitzen dela⁵⁷.

Honekin batera, Mits jaunak azpimarratu zuen Hagako Hitzarmeneko 13.1.b artikuluko arrisku larriaren salbuespena aplikatzeko ez dela eskatzen adingabea indarkeriaren zuzeneko biktima izatea, hau da, etxeko indarkeriaren kasuan onartuta dago haurra lekukoa soilik den kasuetan honengan sortutako eragin kaltegarria biktima zuzena den kasuekin parekatu daitekeela eta, beraz, indarkeri psikologikoaren biktima kontsideratu daiteke⁵⁸. Hala ere, praktikan zeharkako biktima den kasuetan salbuespena aplikatzeko egoera ohiz kanpoko kasu bat izatea eskatzen da eta adingabearentzat sortutako egoera jasanezina dela frogatzea eskatzen da salbuespena baliatu nahi duen aldearen eskutik. Ondorioz, interpretazio oso murriztailea ematen zaio 13.1.b artikuluari eta ez da bateragarria haurrarengan sortzen diren eragin kaltegarriekin.

Biktima den amaren ikuspuntua aztertuz, epaileak bi egoera planteatzen ditu amarentzat: haurrarekin itzultzea indarkeriaren biktima izan den Estatura eta, ondorioz, berriro ere biktima izateko arriskuari aurre egitea, edo haurrarengandik banatzea eta haren gaineko zaintza eskubidea galtzeko arriskuari aurre egitea. Ezein aukera ez da irtenbide on bat etxeko indarkeriaren biktima babesterako orduan, GEEH-ko 8. artikuluaen aurkakotzat jotzen ditu epaileak.

Azaldutako inguruabarrak kontuan izanda, aurkeztutako kasuan frantses epaitegiek burututako lana kritikatzeko du epaileak. Izan ere, amaren frogabideak etxeko indarkeriaren testuingurua baztertuta analizatu zirela uste du epaileak, egitateek sortutako kalte psikikoa baztertuz eta ikuspegi formalista batetik baloratuz egoera: *“Tirer argument de l’absence de*

⁵⁷ Trimmings, K. eta Momoh, O. “Intersection between Domestic Violence...”, *loc cit.*

⁵⁸ Convention Enlèvement d’enfants de 1980, Guide de bonnes pratiques: Partie VI, article 13(1)(b), *Conférence de La Haye de droit international privé*, § 33.

la preuve que constituerait un constat, sans analyser la situation de manière plus approfondie, revient à ignorer complètement les spécificités de la violence domestique⁵⁹”.

Epaileak azpimarratzen du ezin dela etxeko indarkeriaren testuingurua baztertu adingabearen itzulera agintzerako orduan. Gainera, Europako Kontseiluko GREVIO⁶⁰ taldeak esandakoa kontuan hartuz, gomendagarria izaten da biktimarentzat haurrarekin batera tratatu txarrak jasandako lekua atzean uztea eta kasu horietan ezin da ama errudun bihurtu kasua behar bezala aztertu arte.

Beraz, azken iritzi bezala ondorioztatu zuen epaileak Hagako Hitzarmenak ez duela babes eraginkor bat eskaintzen nazioarteko bahiketari aurre egiteko genero indarkeri kasuetan eta beharrezko ikusten du Hitzarmena berrikustea. Berrikuspen edo erreforma eman bitartean, jurisprudenziaren aldetik aukera bat ikusten du frogabideen “azterketa egokia” behar bezala definitzeko eta eraginkorrak diren pautak emateko aurkeztutako kasua bezalakoei aurre egiteko.

Hau aztertuz, ondorioztatu daiteke jurisprudenziaren eskutik ere beharrezkoa dela genero ikuspegiarentzat irizpideak finkatzea, praktikan motz geratu daitezkeelako arrisku larriari orokorrean egiten zaizkion erreferentziak. Etxeko indarkeriaren testuinguruak bahiketen prozesuan pisu handia izaten du amaren erabakietan, ondorioz, ez litzateke bidezkoa izango epaitegiek ezaugarri hori baztertzea edo ez ikusiena egitea amaren alegazioak aztertzerako orduan.

VI. Ama bahitzailearen babesa itzulera prozesuan.

Ikusi bezala, soilik etxeko indarkeria alegatuta adingabearen itzulera ukatzeko pisu nahikoa lortzea zaila da, ondorioz, emaitza adingabea itzultzeko agindua izan ohi da. Egoera honetan amak bi irtenbide ditu: haurrarekin itzultzea eta, ondorioz, biktima izan den Estatura itzultzea, edo haurra soilik itzultzea eta harekiko dituen eskubideak galtzeko

⁵⁹ GEEAko Epaia, Verhoeven vs. Frantzia, 19664/20 zkia, 2024ko martxoaren 28koa, Opinion dissidente du juge Mits, § 12.

⁶⁰ Grupo de Expertos en la Lucha contra la Violencia contra la Mujer y la Violencia Doméstica.

arriskuari aurre egitea. Bigarren aukera jarraitzen badu, haurrarentzat traumatikoa gerta daiteke eta, gainera, ama pertsona berekoi eta apetatsua denaren irudia sortzearen aukera dago⁶¹, horregatik, normala izaten da ama haurrarekin batera itzultzea⁶².

Ama haurrarekin batera itzultzen denean, egoera bereziki zaugarri batean aurkitzen da: berriro biktima bihurtzeko arriskua dago, ekonomikoki zein emozionalki sostengu falta, sinesgarritasuna galdu ohi da...⁶³ Argi dago Hagako Hitzarmenaren helburuetako bat adingabearen interes gorena bermatzea dela, baina honek ez luke ekarri beharko etxeko indarkeriaren biktima izan den ama baztertzea eta babes gabe uztea, argi frogatuta dago amak jasandako egoera honek ere haurraren kalteak sortzen dituela⁶⁴.

Horregatik, nahiz eta nazioarteko adingabeen bahiketari aurre egiteko tresnetan ez jaso amaren babesari buruzko ezer ere ez, ama babestu behar dela jakina da: *“the protection of the child may also sometimes require steps to be taken to protect an accompanying parent”*⁶⁵. Babes hau lortzeko bide bat babes neurrien erabilera da, nazioarteko tresnei esker lortuz Estatu batean lortutako babes neurri bat beste Estatu batean aintzatestea eta egikaritzea.

Hori horrela, gaur egun indarrean dagoen araudiaren eta indarkeriaren biktima izan den amaren babesaren arteko bateragarritasuna lortzeko, hainbat adituk gidaliburu bat garatu dute epaitegiek eta autoritate zentralek erreferentzia gisa erabil dezaten babes neurriak aplikatzerako garaian⁶⁶.

Jarraian azalduko den eran, Gidaliburuak babes neurrien erabilgarritasuna azaltzen du, Europan zentratuz eskuragarri dauden tresnekin zein irtenbide lortu daitekeen azalduz.

⁶¹ Kaye, M., “The Hague Convention and the flight from domestic violence...”, *loc cit.*

⁶² Trimmings, K. eta Momoh, O., “Intersection between domestic violence...”, *loc cit.*

⁶³ *Ibidem.*

⁶⁴ Hale, B. “Taking flight - Domestic violence and child abduction”, *Current legal problems*, vol. 70, 1 zkia, 2017, 3-16 or.

⁶⁵ Hague Conference on Private International Law, Conclusions and Recommendations of the Fifth Meeting of the Special Commission (2006), para. 1.1.12.

⁶⁶ Trimmings, K., Momoh, O., Honorati, C., Dutta, A. eta Župan, M. “Best Practice Guide – Protection of Abducting Mothers In Return Proceedings: Intersection between Domestic Violence and Parental Child Abduction”, European Union’s Rights Programme, 15 July 2022.

1. Babes neurriak adingabeen nazioarteko bahiketan.

Europar Batasuneko araudia aztertutakoan azaldu den bezala, gaur egun indarrean dagoen Brusela II *ter*-eko 27.3 artikulua neurri batzuei erreferentzia egiten die, Hagako Hitzarmeneko 13.1.b artikuluko salbuespena baztertzeko irtenbide gisa.

Neurri hauei erreferentzia eginez, Gidaliburuak hiru taldetan sailkatzen ditu:

- Eskaria jaso duen Estatuak itzulera agindua ematearekin batera hartutako neurriak. Neurriak hartzeko eskuduntza izan dezake Estatu honek, ondoren ohiko egoitzako Estatuan aintzatetsiz.
- Bahiketaren ondoren adingabea aurkitzen den Estatuak aurreikusitako babes, normalean amaren eskariz ezarriak, itzulera eskariko prozesutik kanpo.
- Adingabearen jatorrizko ohiko egoitzako Estatuak hartutako neurriak, bahiketa eman aurrekoak edo ondorengoan izan daitezkeenak.

27.3 artikulua adingabearen babesari egiten dio erreferentzia, beraz, sortzen den galdera da ea haurra babesteaz gain ama bahitzailea ere babestu daitekeen bide hau jarraituz. Hemen interpretazio ezberdinak jarraitu daitezke, baina ulertu daiteke ama ere babestu daitekeela haurrarekin batera ama ere itzuli ohi delako⁶⁷. Hala ere, europar legegileak amak jasandako arriskua eta haurrak jasandako arriskua gurutzatu egiten diren argitzeko aukera galdu du, horren ondorioz haurra babesteko ama ere babestu behar dela azpimarratu gabe⁶⁸.

2. 2013ko ekainaren 12ko 606/2013 Erregelamendua eta 2011/99/EB Zuzentaraua.

⁶⁷ Wilderspin, M., "The Potential Role of Regulation 606/2013 in Protecting The Abducting Parent in Return Proceedings", *Domestic Violence and Parental Child Abduction... op cit.*, 177-186 or.

⁶⁸ Trimmings, K., Momoh, O., "Intersection between ...", *loc cit.*

Europar Batasunean bi instrumentu bidez lortu daiteke babes neurriak Estatur haratago eraginkorrak izatea eta, hari esker, indarkeriaren biktimei mugaz gaindiko mugikortasuna erraztea: 2013ko ekainaren 12ko 606/2013 Erregelamendua, arlo zibileko babes-neurriak elkar aintzatesteari buruzkoa⁶⁹ (aurrerantzean, 606/2013 Erregelamendua), eta 2011ko abenduaren 13ko 2011/99/EB Zuzentaraua, Europako Babes Aginduei buruzkoa⁷⁰ (aurrerantzean, 2011/99 Zuzentaraua).

Bi tresnen ezberdintasun nagusia aplikazio eremua da, hau da, 606/2013 Erregelamendua arlo zibilean aplikatzen den bitartean, 2011/99 Zuzentaraua izaera kriminaleko babes neurrietarako erabiltzen da.

2011/99 Zuzentaruarekin hasiz, bertan sartzen diren babes neurriek oinarrian egitate kriminal bat dute eta etorkizunean hau ez errepikatzeko helburua dute, beraz, biktima krimen batetik babestea du xede⁷¹. Arau honen bitartez, biktima batek Estatu batean lortu duen babes neurria beste Estatu batean aintzatesi dezake, baina prozedura berezi bat aurreikusten da; babes neurria ematen denean biktima Europako Babes Aginduaren aukeraz informatuko da⁷² eta biktimaren eskariz agindua exekutatu nahi den Estatuari jakinaraziko zaio, ukatzeko arrazoirik ez badago honek antzeko neurri nazional bat aplika dezan biktimaren alde.

Hortaz, aintzatespena ez da automatikoki ematen eta, oro har, baldintza nahiko zorrotzak eskatzen dira (denbora epe minimo bat eskatzen da, krimena errepikatzeko arriskua mantentzea...). Ondorioz, 2011/99 Zuzentaru honek praktikan ez du eraginkortasun asko (2020eko ikerketa batek⁷³ erakutsi du urte hartan 37 aldiz aplikatu zela

⁶⁹ 606/2013 Erregelamendua, 2013ko ekainaren 12koa, arlo zibileko babes-neurriak elkar aintzatesteari buruzkoa (EBAO 181 zkia, 2013ko ekainaren 29koa).

⁷⁰ 2011/99/EB Zuzentaraua, 2011ko abenduaren 13koa, Europako babes aginduei buruzkoa (EBAO 338 zkia, 2011ko abenduaren 21ekoa).

⁷¹ 2011/99/EB Zuzentaraua, kontuan hartzeko 9. puntua.

⁷² 2011/99/EB Zuzentaraua, 6.5 artikulua.

⁷³ Report from the Commission to the European Parliament and the Council on the implementation of Directive 2011/99/EU of the European Parliament and the Council of 13 December 2011 on the European protection order, COM (2020) 187 final.

eta soilik 15 kasutan iritsi zela egikaritzara) eta adituen ustez⁷⁴ 606/2013 Erregelamenduaren bidezko babes neurrien aintzatespena lagungarriagoa da.

606/2013 Erregelamenduari dagokionez, zibil gaietarako babes neurrien aintzatespena arautzen du. Bertan zehazten dira zein diren arriskua sortu duen pertsonari ezarri ahalko zaizkion obligazioak biktima babesteko helburuarekin⁷⁵:

- Pertsona babestua bizi den, lan egiten duen edota maiz egoten den lekuan sartzeko debekua edo arauketa.
- Pertsona babestuarekin harremanetan jartzeko debekua edo arauketa.
- Pertsona babestura distantzia batean gerturatzeko debekua edo arauketa.

Neurri hauek Zuzentarauak aurreikusten dituen berdinak dira, baina, kritika bezala, ez zaio erreferentziarik egiten debeku horietan familia etxeari. Neurri hauek ezartzeko arrazoia etxeko indarkerian aurkitzen bada, aukera ona izango litzateke zehaztea babestu nahi den pertsona familiako etxean geratu ahalko dela eta bertara sartzeko debekua ezarriko zaiola erasotzaileari⁷⁶.

Erregelamendu honek aurreikusten duen bidearekin neurrien aintzatespen automatikoa ematen da eskatutako Estatuan, formalki neurrien kopia ziurtagiri ofiziala eta, beharrezkoa bada, itzulpena soilik eskatzen direlarik⁷⁷. Aintzatespena ukatzeko arrazoiak ere oso mugatuak dira⁷⁸, ondorioz, eraginkortasun errazeko prozesu bat da.

Aurrez aipatutako Gidaliburuak Erregelamendu honen alde jotzen du Zuzentarauarekin alderatu ondoren, babesa behar duenak autoritateen aurrean ez duelako froga lan handirik burutu behar, prozesua sinpleagoa delako eta, orokorrean, eraginkorragoa delako. Hala ere, kontuan izan behar da babes neurrien onuradunak eskatu beharra duela

⁷⁴ Tertsch, T., "Cross-Border Recognition Under Directive 2011/99", *Domestic Violence and Parental Child Abduction... op cit.*, 15-35 or.

⁷⁵ 606/2013 Erregelamendua, 2013ko ekainaren 12koa, 3.1 artikulua.

⁷⁶ Dutta, A., "The Cross-Border Circulation of Protection Measures under Regulation 606/2013", *Domestic Violence and Parental Child Abduction... op cit.*, 3-13 or.

⁷⁷ 606/2013 Erregelamendua, 2013ko ekainaren 12koa, 4. artikulua.

⁷⁸ 606/2013 Erregelamendua, 2013ko ekainaren 12koa, 13 artikulua.

neurri hauek beste Estatu batean ere eraginkorrak izatea, horregatik, Gidaliburuak informazioa eskaintzearen garrantzia azpimarratzen du, ezezagutzagatik gerta daitekeelako prozesu hau aurrera ez eramatea.

Amaitzeko, etxeko indarkeriaren eta nazioarteko adingabeen bahiketen gaur egungo egoera ikusita, Gidak gomendio bat ematen du: etorkizunean indarkeria errepikatzeko arrisku bat dagoenean, eta babes neurri hauek sortzen duten eraginkortasun kezkatik, hauek ez erabiltzea adingabearen itzulera bultzatzeko.

VII. Ondorioak.

Lan honen helburua Hagako Hitzarmenaren eta Brusela II *ter*-en eraginkortasuna aztertzea izan da, etxeko indarkeriak bultzatuta nazioarteko adingabeen bahiketak ematen direnean irtenbide egokiak eskaintzen diren ikusteko.

Egiaztatuta geratu da etxeko indarkeriak geroz eta pisu gehiago duela adingabea bahitzeko erabakian. Ukatu ezin den errealitate bat da eta Zuzenbidearen ikuspegitik ezin da besterik gabe inguruabarra baztertu; nazioarteko adingabeen bahiketari aurre egin behar zaio eta, era berean, indarkeriaren biktimen segurtasuna bermatu behar da.

Hagako Hitzarmenari eta Brusela II *ter* Erregelamenduari kritika bera egin zaie: ez zaio zuzenean erreferentziarik egiten etxeko indarkeriari, nahiz eta frogatuta geratu bahiketen atzean fenomeno honek duen pisua.

Hagako Konferentzia arazoaz jakitun da, baina egoera ezabatzeko egindako ahaleginak gomendio hutsean geratu dira, ez da erreformarik planteatu ere egin. Jardunbide Egokien Gidaliburua argitaratu zuten Hitzarmeneko 13.1.b artikulua interpretazio zalantzak argitzeko, baina ez da irizpide garbirik eskaini genero indarkeriaren ikuspegitik eta epaitegien esku utzi da indarkeri alegazioak daudenean adingabearen babesaren balorazioa.

Europar Batasunari dagokionez, badirudi legegilearen lehentasuna Estatu kideen arteko konfiantza harremana indartzea izan dela, garrantzia emanez Batasuneko eremuan lortu nahi den segurtasun juridikoari eta alde batera utziz indarkeriaren biktimek duten zaugarritasunari edota genero indarkeriaren testuinguruari. Brusela II *bis* erreformatzean, nazioarteko adingabeen bahiketen eremuan ez da bestelako berrikuntzarik txertatu, are gehiago, hainbat xedapenek jasotako kritiken ondoren Brusela II *ter*-ean mantentzea erabaki da, honen ondorioz, Europar Batasuneko Estatu kideetan aplikazio oso murriztua ematen zaio Hagako Hitzarmeneko 13.1.b artikuluko salbuespenari.

Bestetik, biktima den amaren babesari dagokionez, Europar Batasunean lotura batzuk egin daitezke kasu hauetan babes neurriak aplikatu ahal izateko, baina berriro ere hauen eraginkortasuna zalantzarria da. Informazio falta handia erakusten dute datuek, alegia, biktimek ez dituzte aukera hauek ezagutzen. Babes neurrien bitartez posible izango litzateke adingabeen bahiketaren irtenbide gisa ama haurrarekin batera jatorriko Estatura itzultzea, baina babesgabezi egoeran ikusten direnez uko egiten die halako itzulera aukerari.

Hortaz, beharrezkoa da arazo hau errotik aztertzea eta zuzeneko erantzunak ematea. Legegileak ezin du jarraitu ezikusiarrena egiten genero indarkeriaren zifren aurrean, honela, indarrean dauden testuetan genero ikuspegia sartzeari beharrezkoa da, jokoan dauden interesen arteko ponderazio egokia egiteko eta epaitegietan haurarentzat eta amarentzat irtenbide apropos bat aurkitzeko. Genero indarkeriaren alegazioak daudenean, ez litzateke erantzun automatikoa izan behar adingabearen itzulera.

Lan honen bitartez ateratako ondorioa da eskaintzen diren nazioarteko tresnak ez direla eraginkorrak genero indarkeriaren testuinguruan nazioarteko adingabearen bahiketari irtenbide egoki bat aurkitzeko. Bide judizialek eman daitekeen porrotarekin, azken urteetan areagotu egin da mediazioaren erabilera eta geroz eta gehiago dira irtenbide honen alde apustu egiten duten adituak. Beste gradu amaierarako lan baterako gai interesgarria izan daiteke hau, genero indarkeria aurkezten den nazioarteko adingabeen bahiketetan mediazioa aztertzea irtenbide posible gisa.

VIII. Bibliografía.

- Beaumont, P., Walker, L., Holliday, J., “Conflicts of EU Courts on Child Abduction: The reality of Article 11(6)-(8) proceedings across the EU”, *Journal of Private International Law*, vol.12, 2016. 211-260 or.
- Beaumont, P., Trimmings, K., Walker, L., Holliday, J., “Child abduction: recent jurisprudence of the European Court of Human Rights”, *International & Comparative Law Quarterly*, vol. 64, 1. zkia., 2015, 39-63 or.
- Borrás, A., “Bruselas II, Bruselas II BIS, Bruselas II TER”, *Revista electrónica de estudios internacionales*, 2019.
- Celis Aguilar, M. M., “El papel controversial del TEDH en la interpretación del Convenio de La Haya de 25 de octubre de 1980 sobre los Aspectos Civiles de la Sustracción Internacional de Menores: Especial referencia a los casos Neulinger y Shuruk c. Suiza y X c. Letonia” *Anuario Colombiano de Derecho Internacional*, 13. zkia, 2020, 209-249 or.
- Dutta, A., “The Cross-Border Circulation of Protection Measures under Regulation 606/2013”, *Domestic Violence and Parental Child Abduction Domestic Violence and Parental Child Abduction: The Protection of Abducting Mothers in Return Proceedings*, Intersentia, 2022, 3-13 or.
- Dyer, A., “To Celebrate a Score of Years” *New York University Journal of International Law and Politics*, 33 zkia, 2000, 1-16 or.
- González Marimon, M. “La regulación de la sustracción internacional de menores en el Reglamento Bruselas II Ter y sus principales novedades”, *Cuadernos de derecho transnacional*, Vol. 14, 2. zkia., 2022, 286-312.

- Hague Conference on Private International Law, “Guide to Good Practice under the HCCH Convention of 25 October 1980, on the Civil Aspects of International Child Abduction - Part IV - Article 13 (1) (b)”, 2020.
- Hale, B., “Taking flight - Domestic violence and child abduction”, *Current legal problems*, vol. 70, 1 zkia, 2017, 3-16 or.
- Jiménez Blanco, M. D. P., “Litigios sobre la custodia y sustracción internacional de menores”, Universidad de Oviedo, 2008.
- Kaye, M., “The Hague Convention and the flight from domestic violence: how women and children are being returned by coach and four.” *International journal of law, policy and the family*, vol. 13, 2. zkia., 1999, 191-212 or.
- Lowe, N., Armstrong, S., Mathias, A., “Análisis estadístico de las solicitudes presentadas en 1999 en aplicación del Convenio de La Haya de 25 de octubre de 1980 sobre los aspectos civiles de la sustracción internacional de menores”, *Aurret. dok. 3. zkia, 2001ko martxoa (2001eko azaroan berrikusitako bertsioa)*.
- Lowe, N., Stephens, V., *A Statistical Analysis of Applications Made in 2015 under the Hague Convention of 25 October 1980 on the Civil Aspects of International Child Abduction, Part I - Global Report*, Permanent Bureau of the Hague Conference on Private International Law, The Hague 2017.
- Momoh, O. “The Need of Cross-Border Protective Measures in Return Proceedings”, *Domestic Violence and Parental Child Abduction Domestic Violence and Parental Child Abduction: The Protection of Abducting Mothers in Return Proceedings*, Intersentia, 2022, 67-80 or.

- Rodríguez Pineau, E., “ La oposición al retorno del menor secuestrado:: movimientos en Bruselas y La Haya”, *Revista electrónica de estudios internacionales (REEI)*, 2018 (35), 4.
- Ruiz Sutil, M. C., “El enfoque de género en la sustracción internacional de menores”, Universidad de Granada, 2018, 245-278. or.
 - “Implementación del Convenio de Estambul en la refundición del Reglamento Bruselas II Bis y su repercusión en la sustracción internacional de menores”, *Cuadernos de Derecho Transnacional*, 2018, Vol. 10, 2. zkia, 615-641 or.
- Tertsch, T., “Cross-Border Recognition Under Directive 2011/99”. *Domestic Violence and Parental Child AbductionDomestic Violence and Parental Child Abduction: The Protection of Abducting Mothers in Return Proceedings*, Intersentia, 2022,, 15-35 or.
- Trimmings, K., Momoh, O., Honorati, C., Dutta, A., Župan, M., “Best Practice Guide – Protection of Abducting Mothers In Return Proceedings”. European Union’s Rights Programme, 15 July 2022.
- Trimmings. K., Momoh, O., “Intersection between domestic violence and international parental child abduction: Protection of abducting mothers in return proceedings”, *International journal of law, policy and the family*, vol. 35,1 zkia.
- Wilderspin, M., “The Potential Role of Regulation 606/2013 in Protecting The Abducting Parent in Return Proceedings”, *Domestic Violence and Parental Child AbductionDomestic Violence and Parental Child Abduction: The Protection of Abducting Mothers in Return Proceedings*, Intersentia, 2022, 177-186 or.

- Yalaz, H., “L’enlèvement international d’enfant et la lutte contre les violences domestiques”, *Droit de la Famille*, 3 zkia, 2024, 21-24 or.

Jurisprudenzia:

GEEAko Epaia (SN), Neulinger eta Shuruk vs. Suitza, 56030/07 zkia, 2010eko uztailaren 6koa.

GEEAko Epaia, X. vs. Letonia, 27853/09 zkia, 2013ko azaroaren 26koa.

GEEAko Epaia, O.C.I. vs. Errumania, 49450/17 zkia, 2019ko maiatzaren 21ekoa.

GEEAko Epaia, G.K. vs. Zipre, 16205/21 zkia, 2023ko otsailaren 21ekoa.

GEEAko Epaia, Verhoeven vs. Frantzia, 19664/20 zkia, 2024ko martxoaren 28koa.